

# *In memoriam.*

## **Jean Haritschelhar,**

### **Baigorri 1923 - Biarritz 2013**

**Jokin Apalategi Begiristain**  
***Uztaro* aldizkariaren zuzendaria**

Urte luzez euskarari eta euskal kulturari emana bizi izan den jakintsua itzali zaigu berriki. *Uztaro* aldizkariak Batzorde Zientifikoa sortzea erabaki zuenetik, 2010eko lehen zenbakiarekin (72.a) gauzatzen hasi zen, kide leiala izan genuen J.Haritschelhar. Batzorde Zientifikoa sartzeko proposamena egitera haren etxera joan ginenean, gure bisitaren arrazoiak agertzean, partaidetzarako baietza bero eta gogotsu eman zigun berehala. Euskara eta euskal kultura zientzietara eramateko asmoak eta ahaleginak bere egiten baitzituen. Bizitzan zehar euskara eta euskal kultura zerbitzatzeko jardueran bilakatu zituen ardua nagusiak gogoraraziko ditugu bokazioz bizi izan zuen eskaintzaren lekuko.

#### **1. Euskarazko irakaskuntza unibertsitarioen aitzindari**

Bordeleko Unibertsitatean, 1962an, euskara katedra zuen René Lafonen ondoan laguntzaile, eta 1969an haren segida hartuz Euskal Ikasketen katedra bereganatzean, euskaraz unibertsitatean irakasten aitzindari izan zen. Gainera berak, Piarres Charriton eta beste lagun batzuekin ere, Baionako Euskal Erakustokian hirurogeita hamarrekotan hamarkadan euskal kulturaren egunak antolatu zituen, urte pare batez, eta jarraian Donibane Lohizunen eta Uztaritzeko Landagoien Udako Euskal Unibertsitatea abiatu jarri zuen. Geroago berriz, Euskal Ikasketen Saila Baiona eta Pabeko Unibertsitateetan errotzen protagonista nagusi bilakatu zen ere. Horretarako, aski berant, hiru haurren guraso zelarik, Barkoxeko Etxahuni buruzko tesi bikoitza burutu zuen eredugarri bihurtzeraino eramanez saiakera literarioa. Egun batez berarekin hitz egiten ari nintzela, zera esan zidan, ni neu doktore egin nintzenean euskal letretan bosgarren doktorea nintzen Euskal Herri osoan. Ez zegoen orain bezalako tesi-emaririk Euskal Herrian. 1950eko hamarkadaren amaieran, Ageneko Lizeoan irakasle zela, udako oporrak baliatuz, aita

Lafitte ikustera joan zen Uztaritzeko seminario txikira. Eta berak kontatu zidanez, doktorego-tesi bat egiteko asmoak kitzikaturik zebilela-eta euskal gaia xerkatzen zuela adierazi omen zion. Hitz aspertu luze baten ondotik, aita Lafittek hiru gai proposatu omen zizkion, eta haietariko bakoitzaren garrantzia eta egitekoan atzeman zitzakeen materialak luzez argudiatu omen zizkion. Eta halako batean elkarrizketa etenez, hau esan omen zion: zaude pixka batean hemen bertan, nire gelaraino itzulino bat egin behar dut eta. Hala, handik denbora aldi batera zazpi liburu eskuetan zituela itzuli omen zen. Barkoxeko Etxahuni buruzkoak zirelarik zazpiak. Aita Lafittek aukera egina zion. Orain Jean Haritschelharrek onartu behar zuen. Liburu sorta hura irakurri ahala Etxahunek berberak Agenen kartzelatua izan zenekoa deskribatzen zuen pasarte bat atzeman omen zuen berehala: «Ni Agenen libratu...». Ahal izan zuen bezain laster, Ageneko kartzelako artxibategiak miatzeari ekin zion. Adineko emazteki arduradun batekin topaturik lehen miaketa desilusioz beteta amaitu omen zuen zeren artxiboko planta nagusian Etxahuni buruzko ezer ez baitzuen atzeman agidanez. Halako batean, beste behin, miaketa berri batera itzulirik, artxibategiko emazteki arduraduna hurbildu omen zitzaion eta esan, artxibategiko ganbaran ere zirela beste karpeta batzuk dokumentuekin. Nahi baduzu biok igoko gara gainbegiratu bat ematera. Hala, esan eta egin, miaketan ari zirela mirakulua bailitzan Etxahuni buruzko karpeta bat agertu omen zen. Argiak pizturik eta gogoia bero-bero zuelarik geldituko ez zen ibilbidearen hasierak izan ziren. Eta handik aurrera ikerketaren suak harturik ezin geldituzko egin zitzaizkion koblakariari buruzko miaketak. Laguntza eske jarrita, Frantziako Ikerketa Zientifikoetarako Batzordearen baimena eskuratu zuen, eta irakasle gisako soldata bat, hiru urterako, 1959tik aitzina, 1968an bukatutzat eman zuen ikerketa, eta 1969an bi tomotan argitaratu zuen. Lehena, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun*, 1969an, eta bigarrena, *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, 1970ean. Liburuaren sarreran egiten duen eskaintzan ikerketa-bidean aurkituz lan orduan berarengan zerikusia izan zuten pertsonaia guztiak aipatzen ditu : Pierre Lhande, Jean Larrasquet, Louis Dassance, René Lafon, Pierre Lafitte, Sébastien Eppherre, Madamen Péria eta Manu de la Sota. Azken bi horiek euren etxeetan zeuzkaten Etxahunen eskuizkribuak, Jean Haritschelharrek zuzentzen zuen Euskal Erakustokiari dohain emateagatik.

Unibertsitateari loturiko atal honetan adieraztekoa da, orobat, CNRSren URA ikerketa-taldearen sortzaile eta buru izan zela. URAK *Lapurdum* aldizkari ezaguna abiatu jarri zuen, 1996an, Jean Baptiste Orpustan lehen zuzendari zela. URA zentroa azkenik 1999az gero indarrean dagoen IKER UMR-ren aitzindari eta bultzatzaile izan zen. Jean Haritxelhar kide iraunkor zuelarik, 1999an, CNRSren, Michel de Montaigne-Bordeaux 3 Unibertsitatearen eta Pabe eta Aturriko Herrieta-ko Unibertsitatearen gerizapean, euskara eta euskal testuak ikertzea helburu duen goi-mailako ikerketa-zentroa den IKER UMR sortu baitzen. 2006az geroztik ere, Euskal Ikasketetako Lizentzia, Masterra eta Doktoretza Bordeaux 3k eta UPPAK aldi berean antolatzen dituzte. Eta 2008az gero, euskal ikasketetan Master 2, doktoregoko eta doktoratu ondoko arloetan dabiltzan ikasleentzat harrera-laborategi bilakatu zen IKER-UMR. 2009an europar irizpideak errespetatzen dituen euskararen ziurtagiri bat sortu zuten Bordeaux 3 eta UPPA unibertsitateek elkarrekin.

## **2. Euskararen eta euskakazko irakaskuntzaren suspertzaile-hedatzaile ikasketa aurreunibertsitarioetan**

Jean Haritschelhar ez zen unibertsitatean gotortuko. Unibertsitario aroaren aurretik bezala ondotik gizartean dauden hezkuntza-esfera guztietan euskara eta euskarazko kultura suspertuz hedatzen saiatuko da. Horren lekuko dira IKAS eta EKE antolamenduak bultzatzen jarritako ardurak. Horrela, 1901eko elkarten legearen eredu pean euskal pedagogia sustatzeko helburuz, 1959an, IKAS zentroa sortu zen, eta 1996az geroztik ezagutzen duguna izatera ailegatzeko ibilbidean funtsezko gertatuko da Jean Haritschelharren kudeaketa. Euskarazko irakaskuntzarentzat testuak sortzea, heroikoak izan ziren urte haietan, Manex Goienezterren eskuetan ipini zuen luzez. Eta ikastolen errotze eta hedatzearen ondorio beharrak definitzen joan zirelarik Euskararen Erakunde Publikoarekin eta Frantses Hezkunde Nazionalarekin lortu zuen hitzarmenaz geroztik IKASen eginkizunak honelakoak izan dira: ikasmaterialgintzako zerbitzu publikoa izan; eta euskararen eta euskarazko irakaskuntza osatzen duten lau sareen federazioa eraiki (hots, sare publikoa, pribatua, ikastolena eta AEKrena). Hiru arlo nagusitan banatzen ditu bere ahaleginak. 1) Animazio pedagogikoa ematen du, irakasleentzako formakuntza- eta informazio-saioak, eta pedagogia-saileko animazioak antolatzen dituelarik. 2) Dokumentazio-zerbitzua elikatzen du, gaur egun 21.000 liburu, bideokasete, CD, CD-ROM eta DVD bilduz, oroz gainetik euskaraz ari diren ikasleentzat eta irakasleentzat erabilgarri egiten dituelarik. 3) Ikasmaterialgintza propioa du gaur egun. 1996az gero 140 obra sortu eta argitaratuak ditu. Azken urteetan, 15 obra inguru argitaratzen ditu urteko.

EKEren sorrera-historian ere Jean Haritschelharren eragina ezinbestekoa gertatu zen frantses botere publikoekin loturak hitzartzeko orduan. 1990ean euskal kulturaren hainbat arlotan lan egiten zuten elkarteren elkartegune bezala Euskal Kultur Erakundea erakunde publikoen diru-laguntzaz sortu zen. Diru-laguntza horien emaitzen artean Frantziako Kultura Ministerioa, Akitania eskudaldeko kultura-zerbitzua, eta 146 udalerrri biltzen dituen Euskal Kulturaren Aldeko Herriarteko Sindikatua daude. Euskara eta euskal kultura suspertzeko sostengatzen dituzten eginkizunen artekoak dira: 1) alor guztietako goi-mailako ikerketak eta kultura trukaketak; 2) euskara darabilten literatura, antzerkia, bertsolaritza, ikus-entzunezkoak, dantza, musika, arte plastikoak, ondarea, euskal kirolak... bultzatzea.

## **3. Euskal Museorik euskaldunenaren birdiseinatzaile**

Baionako Euskal Museora heldu zelarik historiaurre oparo bat kudeatzera zetorrela garbi zuen Jean Hitschelharrek. 70.000 objektu eta dokumentu bilduak izan baitira 1922an sortu zenetik. Laburbilduz adieraz dezagun 1922ko martxoaren 9an, Soci t  des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne elkarteak 1914az geroztik aipatzen zuen ideiari babesa emanaz, Castagnet Baionako alkateak, Museoa antolatzeko erabakia hartu zuela. Kari horretara Boissel komandanteak txosten bat argitaratu zuen. Gaur egun Museoaren atarian ezarritako oroitarri batek aipatu sortzaile eta bultzatzaile hori omenduz oroitzen duenez. Baina ez zen kontserbatzaile huts gelditzeko etorri Jean Haritschelhar. Gero eta nabarmenago euskal gizartean presentzia zuen euskal ibilbide identitarioari zola eman nahi izan zion

bertatik. Museoko zuzendaritzara nola heldu zen gogoratzea aski dugu kontzienteki horretarako hautatua izan zela jakiteko. Nortzuek hautatu zuten? Hasteko, aldi hartako alkate zen Henri Grenet mediku-doktoreak. Baina baita ere Mitxel Labeguerie mediku-abeslari eta politikariak. Jean Haritschelharren laguntzaile urte luzez izan zen Manex Pagolak argitu dit pasarte hori. 1962ko azaroaren 25ean Frantziako Batzar Nagusirako hauteskundeak izanik, egun berean Mitxel Labeguerie Pirinio Atlantikoetako 3. hautesbarrutian eta Henri Grenet 4. hautesbarrutian diputatu suertatu ziren. Lehena, CNIP (Centre National des Indépendants et Paysans) eta bigarrena Rassemblément démocratique hautesle-elkarteen babesean. Biak zentrista sozialak zirela ere esango genuke. Bada, bi politikariek adiskidetza berehala ehundu omen zuten. Henrik, orduan, Baionako Euskal Museoa indartu nahi zuela eta Mitxeli fabore bat eskatu omen zion: euskaldun prestatu bat zuzendaritza-lanetarako xerkatzen laguntzeko, alegia. Eta Mitxelek garai hartan zuzentzen zuen Euskaltzaleen Biltzarreko kide zuen Jean Haritschelhar, berriki Bordele3 Unibertsitatean René Lafonen laguntzaile izendatua zena, proposatu omen zion. Sartu bazen sartu, 1962tik 1986 urtera bitartean Euskal Museoko buru, eta bertako agerkari den *Bulletin du Musée Basque*-ko erredakzio-buru izan zen. Museoaren gai nagusia euskal etnografia da, 2.000 metroko azalera hainbat ataletan banaturik duela: lapurtar eta nafar altzari eta etxeko lanabesak, makilak, arrantza-tresnak, upelgintza, ehungintza, euskal dantzak eta sorginkeria (azken hori 1944an irekia). Atal bereziak erlijio- eta ehorzketa-objektuentzat, baita pilotarentzat ere (Jean Haritschelharrentzat bereziki maitagarria zen azken sail hori zeren Frantziako txapelduna izana baitzen). Benta baten berreraikitzea, antzinako sukalde eta logela batzuen berreraikitzeak, eta 1937an sortutako Hiru B-ren gela deritzona, hots, Biarno, Bigorra eta Euskal Herria agertzen dituena ahanzi gabe. Hori dena XVI. mendetik XX. mendera doazen piezekin osaturik dago. Historiaurre eta Baionako Historiari buruzko hainbat areto ere baditu: Baionako israeldarrak, Zigor aretoa (XII. mendeko hiriaren armarría, moneta eta diru-paperez osatua), Jansenismoa, Idazleen aretoa, Frantziako Iraultzari buruzko aretoa eta XVIII. mendeko historiari buruzkoa orokorrigo. Kartografiako kabinete bat ere badu (XV. mendetik XX. mendera doazen piezekin osatua). Gainera, eta beste guztiaren gainera, Euskal Gaiaz inon dagoen liburutegirik aberatsenetarikoa dago. Jean Haritschelharren merituen artean dago ere: erakustotiko dokumentu sorta handizki garatzea beraren zuzendaritzapean. Gaur egun, euskal alorreko 30.000 dokumentu daude: 1) Euskal kulturaz eta eskualdeaz ari direnak. 2) XIX. eta XX. mendeetako euskal egunkari eta aldizkariak. 3) Axular, B. Etxepare, J. Leizarraga eta A. Oihenart bezalako autoreen izkribu originalak. Euskaltzalegoan, oro har, eta bereziki abertzalegoan konfiantza eta kolaborazioa eragin zituelarik pertsonalizatutako lorpen anitz ekarri zizkion Baionako Euskal Museolari.

#### 4. Inoizko euskaltzainburu diplomatikoena

Saiatu zen politika idekian eta ondorioz Baigorriko auzapez izan zen 1971tik 1980ra. Baina zintzoegia zen langintza horretan jarduteko. 1980ko martxoan, lparretarrak-eko bi kideri lehergailu bat zartatu zitzaien. Baigorrikoa zen bietariko bat, eta hiletara joan zen Haritschelhar. Herritarrek ez zuten onartu jarrera hori. Berak noizbait hala adierazi zuen: «Ez didate barkatu. Joan naiz giristino gisa.

Baina baigorriar batzuentzat bekatu mortala egin dut». Ondorioz udal-taldeko kide guztiek dimisioa eman zuten jarraian, eta Haritschelharrek utzi egin behar izan zuen alkatezta. Gertakizun hori, hala ere, kultur politikan abiatzeko puntu egokia izan zitzaion. Euskara eta euskal kulturaren arloan zeuzkan ideiekin nola Frantzian hala Espainian xede horiekin borrokan ari zirenen bitartekari sutsu bihurtzeko bidean jarri baitzuen bere burua. Eta bere hileta-egunean Baigorriin ikusitako ordezkari politikoak kontuan izanik lortu ere erabat lortu zuela ondorioztatu behar dugu. 2013ko irailaren 1eko *El País* egunkariak «embajador de la cultura vasca desde las catacumbas de la posguerra hasta la realidad nuestra» esaldiarekin agurtu zuen. Frantziako hainbat gobernu ere euskal kulturako ordezkari-bitartekari bezala erabili izan zuen urte luzez Euskal Herriaren kultur protagonis- tekin hitzartzeko beharretan. Baina bere eginkizun bikainena eta biribilena Euskaltzaindian burutu zuen. 1962tik hil arte euskaltzain oso izan zen, 1965etik 1988. urte arte euskaltzainburuorde, eta 1989tik 2005ra euskaltzainburu. Bitarte guztian euskararen alde egindako zerbitzu militantea dago. 1968an Arantzazuko batzarraren ondoren, Euskaltzaindia noraezean ageri zelarik, J. Haritschelharrek Baionako Euskal Museoaren ateak zabaldu zituen aditzaren batasunerako bilera egiteko, eta gela bat eskaini, guztiak bertan elkartzeko. Han, L. Mitxelenaren gidaritzapean, P. Lafitte, J. Haritschelhar, G. Aresti, P. Altuna eta I. Berriatua bildu ziren, besteak beste, euskararen batasuna helburu zutelarik. Geroago, L. Villasante euskaltzainburu izendatu zutenetik, bilerok Euskaltzaindiaren babes eta agindupean egiten ziren, J. Haritschelhar partaide leial zelarik. 1989an hasita J. Haritschelhar euskaltzainburu zen bitartean, Hizkuntza Atlas, Orotariko Euskal Hiztegia, Literatura hiztegia, Gramatika liburuak... eta abar azkartuz aurrera eramaten ziren.

## 5. Euskararen eta euskal kulturaren pentsamenduaren giltzarri bila

Gogoangarri den liburu kolektibo bat koordinatu zuen heldutasunean zegoelarik. *Etre basque* obraz ari gara. Bertan ageri den hitzurrean euskara eta euskal kulturaren aldeko pentsamendu-hausnarketaz azken hitza utzi digu. Euskaldunak emango diren heinean eta eurretaz gogoeta egin, zer da euskaldun izatea? ezinbesteko galdera dela adieraziko baitu. Zerbait materialaren esentziaz galdezkatzeari zilegi baiteritzo, esentzia hori, materia horren printza osagarrietarik denean. Euskaldungoaren izpirituaz ari gara: ukatu ezinezkoa baita gizon-emazte euskaldunak, pertsonalitate euskaldunak, egitate euskaldunak egon badaudela. Ingurugiro geografiko eta natural jakin bat zedarritzen du hasteko. Zabalago ala hertsiago izan dena gizatiarren mugimenduen arabera. Hori horrela, euskal lurraldean gizon-emazte historikoek sortutakoak baloratzea du helburu. Historiaurreko denboretatik lerro jarraituan arbasoak dituzten biztanleek ari garelako datua bera ere ez da ahaztekoa. Hizkuntza original eta espezifikoaz gain Cro-Magnon izeneko askazia, gure eskualde honetan, oraingo euskal tankera hartzen ari zeneko garaiak ziren. Emaizta zientifiko kontrastatuek errealitate etniko aparta sortu zela erakusten digute. Hizkuntzaren sedimentuek luzaz artzain-herria izan garelako adierazten digute ere. Erromatarren kolonizazioak arrastoak utzi badizkigu ere, ez zuen euskaldun izatearen muina aldatu. «Ager vasconum» lurraldean laborantza handizki praktikatu da orduetik. XVI. mendean gero, artoa helduko denetik natalitatea nabarmenki emendatuko delarik. Horrek euskal biztanleak auzo-komunitateak idekiz etxe sakabanatuetan bizitzera eramaten ditu. XIX. mendean

industriaren ezarpenak fenomeno urbanoa ekarriko du. Klaseak ugaritu eta immigrazioaren fenomenoak gauzatzea ere bai. Bestalde, euskal marinel eta arrantzaleen eraginak beste ezerk baino gehiago unibertsalizatorantz bultzatuko gaitu.

Alde immaterialago bati dagokionez, VIII.-X. mendeen artean kristautasunaren txertoak euskaldun pentsamendua erasokor bihurtu zuela erakusten digu. Hainbat euskaldun karitate- eta solidaritate-eginkizunetan munduan zehar barreiatu zituen berean kolonizatzaileen proiektuetan partaide bilakatu baitzituen.

Nafar Erreinuak euskaldunak politikara eraman gintuen nahiz eta herritar pentsamendu politiko propiorik ez zuen sortu euskaldunen artean. Gure paradoxen artean, Henrike III.a nafarrak, XVII. mendean Frantziako tronura ailegatzean, euskaldunak bitan zatituko gintuen erabakia dago muga geografikoa finkatu zuelarik. XIX. mendean abertzaletasunaren sorrerarekin Euskal Herriaren independentzia politikoa kitzikatuko da. Zazpiak bat aldarrikatzen hasten da.

Euskal kulturaren faktorerik funtsezkoena, hala ere, euskara dugu. Morfologia eta sintesia dago originaltasun handiena. Fonetika, morfologia eta sintesia bereziak edukitzeak egitura zahar eta originala duen hizkuntza egiten du euskara. Pertsona eta abereentzat generoa daukanean gauzentzat neutroa gordetzen dugu. Gainera deklinazioak dauzka. Baita nomilentzat (substantiboak, adjektiboak eta izenordainak barne) hamabi kasu ere, azken elementuak bakarrik ekartzen duelarik determinazioaren marka. Aditza zeharo desberdina du hizkuntza erromanikoen aldean. Hiru elementuren dependentzian funtzionatzen du: agentea, konplementu zuzena, eta onuraduna, alegia.

Euskaldun izatea, sentitzea, geografiari, historiari eta hizkuntza-komunitateari loturik dago edozeren gainerik. Euskaldun izatea euskal nazio-nazionalitateko kide kontsideratzean baitatza. Euskaldunok nazioa eta nazionalitatea sortzez originalak ditugunean, herritartasuna gureak ez diren Estatuak ezartzen digutela digu Haritschelharrek. Horrela euskaldun bat herritartasunez, frantses, espainol edo amerikar izan litekeela.

Azken pasarte horretaz ohar bat egin nahi dugu. Euskaldunen egungo egoera ez da hautazkoa, horregatik dramatikoa ere gertatzen ahal da. Non dagoen arazoa? Euskaldunok nazioa ukanik ere, gobernatzen gaituzten frantses eta espainiar Estatuak nazionalitatea lapurtu digute, eta estatu-nazio horiek nazionalitatea elementu funtsezkotzat darabilte herritartasunak artibuitzeko orduan, eta horien arabera eskubideen presentzia disfrutatzea ala falta pairatzea tokatzen zaigula lurralde horietan bizi garen biztanleoi. Nazionalitate-lapurketa horrek ondorioak ditu immigrazioarentzat ere. Horrela, gaurkoz, euskaldunak nazionalitate gabeko nazioa gara. Bestalde, Europako estatu-nazioetan ez bezala Amerikako Estatu Batuetan arazo honek beste erantzun bat izan du, zeren berrogeita hamar estatuz eta hamalau lurralde irlatarrez osaturik dagoenak, Columbia barrutian kokaturik dagoen Washington hiriburua berrogeita hamar estatuen barruti federal egin baitzuen, eta gisa horretan estatu bakoitzak daukan nazio-nazionalitatea ez da operatibizatzen amerikar herritartasunaren zuzeneko determinatzailetzat bihurtuz, guztientzat bakarra eta berrogeita hamar nazionalitateei dagokienean neutroa den federaziotik eratortzen baita herritartasuna.

## 6. Oroitzapenetik agurrera

Azken agurra eman aitzin gogora ditzagun argitaraturik utzi dizkigun obra nagusiak. Bi aletan ateratako bere tesiaz eta aipaturiko *Etre Basque* obraz aparte ondoko hauek bereiziko ditugu:

- *Martin Larralde Bordachuri, le poète galérien*, 1963, *Gure Herriaren* separata.
- *Le Rugby à Bayonne : Juillet-octobre 1966*, Jean Haritschelharren Hitzaurrea, 1966, Musée Basque, Baiona. Erakusketa. XIX. mendeko euskal herritar poesiaren ikasketari buruzko ekarpena, Société des Amis du Musée Basque.
- *Homenaje a la memoria de D. Julio de Urquijo e Ybarra al cumplirse el centenario de su nacimiento:celebrado en Bilbao el día 12 de Mayo de 1972*, Luis Michelena, Jean Haritschelhar, Ignacio de Urquijo (Ospín de Urquijoko kondea), Bizkaiko Kultura Batzordearen argitalpena, 45 or.
- *La langue basque dans l'enseignement primaire en Pays basque*, France, Fryske Akademy, 1988, 132 or. Ingeles bertsioan, *The Basque language in primary education in the Basque Country*, France.
- *Ser vasco*, 1986, Mensajero.
- *Ponttokeriak (Orhi)*, 1995, Elkar.
- *Homenaje a Federico Krutwig*, 1997.
- *Vasconiana*, 1999.
- *Jean Haritschelhar-i omenaldia, Euskaltzaindia, 2008/01/01*, 456 or.
- *Laudationes y discursos de los Doctores Honoris Causa en Filología: Jean Haritschelhar Duhalde, Xesús Alonso Montero, Antoni Ma Badia i Margarit, Humberto López Morales*. Espainiako hizkuntzen onarpenez egindako doctores honoris causa izendatze-ekimen arranditsuaren kariatara: Madrilen, 2010eko martxoaren 23an, Jean Haritschelhar, Xesús Alonso Montero, Antoni Maria Badia i Margarit, Humberto López Morales, Universidad Nacional de Educación a Distancia, UNED, 2010, 230 or.

Gainera hainbat euskal aldizkaritan kolaboratzaile suharra izan zen: *Bulletin du Musée Basque*, *Egan*, *Hegats*, *Lapurdum*, *Enbata* eta bereziki aita Lafittek sortu eta luzez kudeaturiko *Herrian*. Azken horretan astero bi artikulu argitaratzen ari zen urte anitz hauetan heriotzak harrapatu duen arte.

Euskararen eta euskal kulturaren alde egin zenuen lan joriak sorturiko zuhaitz hezea dager zure heriotzaren itzalean ere. Bizi luzeko zuhaitz mota da. Jakin ezazu *Uztaro* aldizkariko ikertzaileok inoiz ez dugula igartzen utziko, noski. Ikertzaileek garbi daukagularik jakitatea amairik gabeko langintzaren emaitza etengabea dela. Bakoitzak ditugun konbentzimenduekin gizarte-zientzien ezbai sortzailea bultzatuko dugu zuk agertu zenuen bestearekiko errespetua ikur eginaz.

